

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1996ko irailak 12 • 105.zka.



Ikastarook

Alberto Etxebarria: tribuak ezagutzen

Kontu zaharrak: Kurtzebarriko eguna

Joseba, Atlantatik bueltan

901 333 444

Telebanka



.....
Euskadiko Kutxaren
Banka
Telefonikoa.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Zer iruditzen zaizu telebistan horrenbeste futbol botatzea?

Karmen Garitano
(Etxekoandrea)

Futbola gustatzen zait baina horrenbeste futbol botatzea ez zait ondo iruditzen. Hemengo kirolak, pelota esaterako gehiago bota beharko lukete.




Andoni Antxia
(Pre-jubilatua)

Ni futbolista izandakoa naiz baina horrenbeste futbol larregi da. Astean partidu bat nahikoa da, bestela jendea kantsatu egiten da.



Ramon Altube
(Jubilatua)

Aspergarria da. Futbola gustatzen zait baina ez horrenbeste ikusteko. Nik uste dut gutxiago bota beharko luketela, bestela aspertu egiten da bat.



Alazne Urzelai
(Ikaslea)

Oso txarto iruditzen zait. Nik uste dut astean behin ipinita nahikoa dela. Futbolaz kokoteraino bukatzen duzu azkenean.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

ANDRAMAIXEN INGURUAN

Kaixo lagunok,

Aprobetxatu gura nuke Aretxagazetak atxabaltar guztioi gure iritzia emateko eskeintzen digun lekutxo hau hitz batzuk esateko. Herriko jaiak aspaldi bukatu ziren, baina berandu bada ere, ez naiz geratuko hausnarketa txiki bat egin barik gai horren inguruan.

Zoriontzekoa iruditu zitzaidan **"Rakoto"** taldeak eskainitako errezitala, bikaina benetan. Tamalez, eta urtero gertatzen den bezala, ez ginen asko izan plazan euren inguruan bildu ginenak, baina han elkartu ginenak oso gustora egon ginen. Ez nuen espero horrelako kategoriako talderik aurkitzea Aretxabaletako jaietan, horregatik geratu nintzen harrিতa plazan jende gehiago ez zegoela ikusterakoan, seguraski tabernetan zebilen gazte askok beste edozein egunetan ordaindu egingo luke talde horren errezital batetara joateagatik.

Beraz, zorionak talde hau ekartzea bururatu zitzaionari.

Ezin dut gauza bera esan "suzko erruerak" gaueko ordu batetan jartzea bururatu zitzaionarentzat. Gauza gutxi egoten da jaietan adin guztietako jendeak gozatzeko modukoa, eta horietako bat "suzko erruerak" dira hain zuzen, eta umeekin horren zain egon behar dutenek azkenerako zeharo nekatuta eta aspertuta bukatzen dute; uste dut ekitaldi honek ez lukeela egon behar pelota partiduaren menpe.

Eta bukatzeko, zer gertatu zen Piratekin? Zerbait antolatu aurretik ea baldintza guztiak kontutan hartzen ditugun: autobusa plazan kabitzen den ala ez, kalea libre dagoen ala ez,...; hurrengorako umeei eskertuko lukete.

Hauek dira niri bururatu zaizkidan gogoetak, baina seguruaski beste askok ere izango ditu bereak.

Ea denon artean gauzak gero eta hobeto egiten saiatzen garen!

I.M.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia.
Erredakzio-kontseilua: Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz.
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabere, M. J. Aretxaga, Gorka Etxabe, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale.
Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.
Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

1996ko irailak 12 - 3. orr.



Dorleta-Dorleta zikloturista martxa

Datorren domekarako, Dorletako Amaren eguna ospatzen dela eta VI. Dorleta-Dorleta zikloturista martxa antolatuta dago. Klasika hau Aretxabaletako zikloturista taldeak antolatu du Leintz Gatzaga eta Aretxabaletako Udalen laguntzaz. Gipuzkoa mailako hainbat zikloturista taldek parte hartuko du proban.

Goizeko 9etan Gatzagatik irtengo dute txirrindulariek eta 105 km egin beharko dituzte guztira. Ibilbidea ondorengoa: Leintz Gatzaga-Eskoriatza-Arlaban-Ulibarri-Durana-Zubizabal-Villareal-Kurtzeta-Arrasate-Leintz Gatzaga. Ibilbidea bukatutakoan luntx-a izango dute guztiek Gatzagan.

Jendeak ondo erantzun zuen Kurtzebarriko egunean

Kurtzebarriko eguna ospatu zen pasatu den domekan. Eguraldi aproposa zegoen mendira joateko eta jende dexente hurbildu zen Kurtzebarrira. Batzuk goiza pasatzeko asmoz joan ziren, beste batzuk berriz, Elizabarrin gelditu ziren bazkaltzeko.

Meza goizeko 11etan izan zen eta beste urte batzutan moduan

Xabier Zuberok eman zuen. Ondoren salda eta txanpaina banatu ziren.

Txalaparta eta trikitalariak entzuteko aukera ere izan zuten bertara hurbildu zirenek. Tontorrean giro ederra egiten zuenez jendea gustora egon zen zelaian jarrita. Eguerdirako guztiak jeitsi ziren.


TABERNA
ARLUTZ
 MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34


EGUZKIGRAF
 inprimategia
 Industrialdia 1-0-4
 Tfnoa: 791844
 Faxa: 792911
 ARETXABALETA

BEIRALAN

KRISTALDEGIA
 Loramendi 10 ☎ 79 81 78
 Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP
Garbiketa
orokorrak
 Errekabarren 3- Behea
 Tfnoa: 79 01 28

IMANOL
JANARI DENDA
 Harategia
 BEREZIKI Urdaitegia
 Fruitategia
 Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

Ikastaroak

YOGA IKASTAROA

Yoga ikastaroa irailaren hasieran hasi bazen ere oraindik ere apuntatzeko aukera dago. Ikastaroa astean bi egunetan ematen da, martizen eta eguenetan, goizez, 10,30etatik 12,00etara eta arratsalde, 3retatik 4,30etara eta 6,30etatik 8etara.

Irakaslea, Enkarna Mendez izango da eta klaseak kultur etxean emango dira hasiera batean behintzat. Izena ematea kultur etxean egin daiteke edo eta 79 88 53 telefonora deituz eta Enkarnagatik galdetuz. Prezioa, hilean 3.000 pezetakoa da.

Bizkar hezurra eta arnasketa landu eta lasai egon gura izan ezkereraren hemen duzu aukera.

AQUAGYM IKASTAROA

Aurten ere uretako gimnasia egiteko aukera izango da kiroletxean. Urteko hila bete guztietan emango da, astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan. Bi txandetan banatuko da

ordutegia, 4,30etatik 5etara edo 8etatik 8,30etara.

Bazkideentzat 2.000 pezetakoa da prezioa, 3.000koa bazkide ez direnentzat. Apuntatu gura izan ezkereraren kiroletxean eman daiteke izena.

HIRUGARREN ADINEKO, MANTENIMENDURAKO ETA GUTXITU PSIKIKOENDAKO GIMNASIA

Hirugarren adineko, mantenimendurako eta gutxitu psikikoendako gimnasiako klaseak hasita daude kiroletxean.

Ikastaroen ordutegia iazkoaren berdina da eta monitorea Jose Luis Eraña izango da. Mantenimendurako gimnasia, astelehen, eguazten eta eta eguakotxetan emango da, goizetan, 9,15etatik 10,15etara eta arratsaldetan 17,30etatik 18,30etara eta 18,30etatik 19,30etara.

Hirugarren adinekoei zuzendutako klaseak ere astelehen, eguazten eta eguakotxetan emango dira, azken hauek 10,15etatik 11,00etara.

Azkenik, gutxitu psikikoek martizen eta eguenetan izango dituzte klaseak, arratsaldeko 18,00etatik 18,45tara.

Gimnasiako klase hauetan partu hartu gura dutenek kiroletxean eman behar dute izena edo eta telefono honetara deitu, 79 64 61.

Guzti honekin batera, gogoratu, kiroletxeko bazkide diren hirugarren adineko pertsonen ez dutela ezer ordaindu beharko gimnasiako klaseetan parte hartzeagatik.

AEROBIC IKASTAROA

Aurten ere aerobic-a praktikatzeko aukera izango da. Klaseak hasita daude dagoeneko baina oraindik ere apuntatu daiteke. Irakaslea Pili Muñagorri da eta aurreko urteetan moduan musika eskolan emango dira klaseak. Hiru txanda daude, goizetan, 9etatik 10etara eta arratsaldetan 3etatik 4etara eta 7etatik 8etara. Goizeko txanda, astelehen, eguazten eta eguenetan izango da. 3retatik 4etara bitartekoa astelehen, martizen eta eguenetan eta ilunkarako barriz, martizen, eguazten eta eguenetan. Prezioa, 3000 pezetakoa da.

Beraz, gorputz osoko koordinazioa landu, musikaz dantzatu, eta bitartean gimnasia egin gura baduzu hortxe duzu aerobic ikastaroa. Apuntatzeko deitu 79 80 54 telefonora.

IGERI IKASTAROA

Igeri egiten ikasteko edo eta hobetzeko igeri ikastaroa antolatu da. Ikastaroak 45 minututako 20 sesio ditu. Prezioa, 4.500 pezetakoa da bazkideentzat eta 6.000 pezetakoa bazkide ez direnentzat. Igeri ikastaroan apuntatzeko kiroletxean apuntatu daiteke edo eta 79 64 61 telefonoan.

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkitekiki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



Herria dantzariz beteko da irailaren 22an

Jubilatuentzako Benidorm-era bidaiak

Gipuzkoako jubilatuek eta pentsiodunen elkarteek Benidorm-en egun batzuk pasatzeko bidaia desberdinak antolatu ditu. Urrian hasi eta maiatzetara hileroko egongo da joateko aukera eta egonaldia hoteletan izango da. Hilabetearen arabera prezioa aldatu egingo da. Abenduan, urtarrilean eta otsailean 31.500 pezetatakoa izango da, gainontzeko hilabeteetan 33.500 pezetatakoa. Interesatuta egon ezkerok Basotxo jubilatuen etxean duzue informazio gehiago. Apuntatzeko azken epea irailaren 25a da eta.



Haurren eguna

Irailaren 22an dantzariz beteko zaigu Aretxabaleta. Inguruko herrietako dantzariak gurera etorriko dira haurren eguna ospatzera.

Goizeko 10etan txistularien dianarekin hasiera emango zaio egunari. Ondoren dantzarietara ongi etorria egingo zaie.

11etan hamaiketako egin ostean denak dantzatzeko gertu egongo dira herriko kaleetan zehar. Eguerdiko 1,30etan bazkaltzera joateko haur banaketa egingo da plazan.

Bapo-bapo bazkaldu ostean arratsaldeko 5etan elkartuko dira dantzariak

plazan alardea dantzatzeko. Bertan, mutilek banakoa, Ikurrin dantza eta Jorrai dantza egingo dute. Neskek berriz, Gipuzkoako zinta dantza, Bizkaiko arku dantza eta Makil dantza kapitanarekin.

Dantzaldiari bukaera emateko, dantzari guztiek Makil txiki, Txululai, Gorulari, Fandangoa eta Arin-Arina dantzatzeko dute. Ondoren bolo-boloa egongo da guztientzat.

Egun honetan inguruko herrietako dantzariak hemengoan etxeetan bazkaltzeko ohitura dago, aurrean ere animatu zaitezte dantzariak bazkaltzera eramateko.

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

Okindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Mitarte, 1 - Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIATZA



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

Unibertsitatera joateko autobusak

Donostiara eta Bilbora egunero joan etorria egiteko autobus zerbitzua antolatu du Aixola elkarteak. Goiz eta arratsaldez egongo da autobus zerbitzua eta azken orduko aldaketarik egoten ez bada behintzat ondorengo orduetan: Eskoriatzatik irtenda eta bai Bilbora eta bai Donostiara, goizeko 6,15etan, 7,10 eta eguerdiko 12,45etan.

Bueltarako berriz, Leioatik irtenda, eguerdiko ordu batean, ordu 2etan eta arratsaldeko 6etan eta 8etan. Donostiatik Eskoriatzara berriz, eguerdian, 1,15etan, 2,15etan eta arratsaldez 6etan eta 8,10ean.

Prezioa 12.000 pezetatakoa da hileko baina iraileko eta ekaineko prezioa merkeagoa da.

Interesatuta bazaude Arrasateko Gazte Bulegoan eman dezakezue izena, 77 00 65 telefonora deituta.



Helduen heziketarako matrikulazio epea zabalik

HHI, Helduen Heziketa Iraunkorreko klaseak irailean hasiko dira. Ikasketa hauek, idazten eta irakurtzen ez dakiten edo eta graduatua atera gura duten pertsonen zuzenduta daude. Kurtsoa irailaren 23an hasiko da, baina kurtso honetan parte hartu gura duenak hilabete osoa izango du apuntatzeko. Horretarako udaletxera jo behar da eta bertan fitxa bat bete.

Klaseak goizez emango dira Aretxabaletan, Arrasaten berriz, goiz eta arratsaldez izango dira. Badakizue, graduatua atera edo alfabetatzea gura duzuenok ez utzi aukera pasatzen.

Agur Mikeli Antoniori ongi etorri

Datorren domekan 12etako meza nagusian Mikel Egizabali agurra eta Antonio Astigarragari ongi etorria emango zaio.

Mikel, azken sei urte hauetan herriko abade laguntzaile lanak egin dituenak Amasara (Billabona) alde egingo digu. Hori dela eta, parroko barria izango dugu herrian, Antonio Astigarraga azkoitiarra. Don Bitoriano laguntzaile moduan geldituko da.

Egun horretan meza Jose Maria Setien Gotzaiak emango du.

Leizarra musika eskola

Leizarra musika eskolak 1996-97 ikasturterako matrikulazio epea zabalik du. Irailaren 30era arte egongo da zabalik. Edozein argibidetarako 79 36 50 telefonora deitu daiteke arratsaldeko 5etatik 6etara.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

JOSE MARI bodegoia

- (Eguneko menua
- (Bataioak
- (Jaunartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45
ARETXABALETAKO

TXAKOLI

- a - Pintxoak
- b - Kazuelak
- e - Pulpo espezialitatea
- r
- n Andra Mari Auzunea
- Tfnoa: 79 02 25
- a ARETXABALETAKO



AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57

Ludoteka ostera ere zabalik

Irailaren 11n zabaldu zuen ludoteka Loramendi Elkarteak. Egunero 5etatik 8etara zabalduko da, larunbatetan berriz goizeko 11etatik ordu 1etara. 4tik 12 urtera bitarteko haurrek jolastu ahal izango dute bertan baina adin bakoitzak bere ordutegia izango du; 4tik 6ra bitartekoek asteazken eta larunbatetan; 7tik 9ra bitartekoek astelehen eta ostegunetan eta astearte eta ostiraletan nagusienek.

Loramendikoek ludotekarako 3 arau azpimarratu gura dituzte: alde batetik umeez beren ordutegia errespetatu beharko dute; bestetik, gurasoak ezingo dira ludoteka barruan egon eta azkenik erabilitako jostailuak jasota gelditu beharko dira. Aldi berean, zera adierazi gura izan dute, ludotekak ez duela umeen aparkalekua izan behar, umeez euskal giro hezitzaile batean jolastuko duten lekua baino.

Guzti hau kontutan izanik, bazkide txartela egiteko ludotekatik pasatu behar da. Aurtengo kuota 1.000 pezetatakoa da.



Aurten ere bazkari intsumitua egongo da

San Migelak ekintzaz beteak

Irailaren 27, 28 eta 29an ospatuko diren San Migeletarako ekintzaz betetako egitaraua antolatu du kultura batzordeak, herriko koadrilen eta elkarteek laguntzaz.

Ekintza aipagarrien artean, eguakotxean Markelñe antzerki taldeak eskainitako gaueko kale antzerkia izango da. Zaturako, artisau feria, produktu biologikoen feria, bazkari intsumitua (Aretxabaletako Talde Antimilitarista) eta Beinke-Loramendi (Loramendi Elkarte) dantzaldia daude. Domekarako berriz, herri kirolen saioa antolatuta dago. Perurena harrijasotzailea etorriko da eta pentakloi saioa ere egongo da.

Egitaraua oraindik guztiz zehaztu barik dago baina laster izango duzue zuen etxeetan.

Herri bazkaria Talde Antimilitaristak antolatuko du aurten ere. Prezioa 1.200 pezetatakoa da eta Arlutz eta Urbaltz tarbarnetan eman behar da izena.

Uraren inguruko erakusketa ibiltaria

Gipuzkoako Ur Kontsorzioak uraren inguruko erakusketa ibiltaria antolatu du. Erakusketa honen helburua, ibaien garbitze plana da. Honekin batera, Uraren Kultura Berria erakustera eman gura da. Kultura hau, uraren aurrezkian, honen erabilera egokian, uraren kalitatean eta ingurunearen errespetuan oinarritzen da.

Erakusketa irailaren 17tik 20ra bitartean egongo da ikusgai udaletxeko ganbaran. Goizez 10etatik 13etara eta arratsaldez 4etatik 8etara bitartean.

Gai honekin loturik, irailaren 18an Gipuzkoako Ur Kontsorzioari gerentea den Iñigo Elosegik, uraren kultura berriaren inguruko hitzaldia emango du udaletxeko ganbaran arratsaldeko 7etan hasita.

**AMETS
TABERNA**

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

Iber

❁ **Paperdenda** ❁

Otalora, 2 ■ Tfnoa: 79 79 24
Aretxabaleta

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
Kroasantegia
"Janari prestatuak"

Mitarte, 1 ■ 77 03 08
ARETXABALETA

**P-I-ZO-S
SUNZUE S.A.**

**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 beheka ■ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56




Lubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • 79 16 00 **ARETXABALETA**
Biteri 1 • 79 66 53 **ARRASATE**

**EZKUTU
TABERNA**

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01



EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33



IBARRA

ESTANKOIA

Tabakoa eta
ikasmateriala
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA


Elektragailuak
Elektra-instalaketak
Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10



Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta



URBALTZ TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Bake berdea: 25 urte lanean

Estatu Batuetako Gobernuak 1971. urteko azaroaren 6rako Alaska inguruan froga nuklearrak iragarri zituelarik, David McTaggart-ek ekintza honi aurre egiteko talde ekologista bat sortu zuen Kanadan. Urte bereko irailaren 15. eguneko arratsaldeko lauretan, Phyllis Cormack-ek zuzentzen zuen untziak bela berde bat zabaldu zuen ekologiaren izenean eta 42 egunetako bidai luze bati hasiera eman zioten. Hortxe sortu zen *Greenpeace* (Bake Berdea) ekologista taldea.

Bonba nuklear hori jaurtitzeko proiektua geratzerik lortu ez bazen ere, *Greenpeace* buruturiko ekintza honek sona ikaragarria izan zuen. Hau ikusirik *ortzadarraren gudariek* beren hasierako arrazoiarekin desagertu beharrean aurrera jarraitzea erabaki zuten, izan ere munduko arazo ekologiko guztiak ez bait ziren Estatu Batuek egun horretan eginiko froga nuklearrera mugatzen.


Azken 25 urte hauetan hainbat frentetan borrokatu da *Greenpeace*. Hala nola froga nuklearrei aurre egiten; isurketa erredia aktiboak geldiarazten; bale, foka, delfin eta beste hainbat animalia babesten; produktu kloratuen produkzioa erasotzen; deriba sareak erabiltzen deneko arrantza ilegalizatu nahian; euri azidoaren aurka ere bai,...


Hasiera batean Kanadan besterik ez bazegoen ere, dagoeneko mundu osoan ditu ofizinak eta ondorioz *Greenpeace International* deritzon erakundea sortu behar izan dute herrialde guztietako taldeak koordinatu ahal izateko. Bere flota ere asko haunditu da 25 urtetan. Nork ez ditu ezagutzen dagoeneko

Rainbow Warrior, Sirius, Moby Dick, Solo edota *MV Greenpeace* itsasuntziak?

Euskal Herrian ere hainbat ekintza burutu ditu, esate baterako, 1991. urtean Bilboko portura hondakin oso kutsakorrek zekartzan *Baltica* untzi daniarra egun batzutan zehar portutik kanpora eduki zuen *MV Greenpeace*ek. Ez zuen ordea bere helburua osoki lortu, hondakin kutsakor horiek Bilbon izan bait zuten helmuga.

Aurten ordea gaizki portatu zaigu gure herrian. *Itoizekiko elkartasuna* taldeak Itoizen buruturiko "sabotaje" ekintza gaitzetsi bait du, indarkeria erabili dela argudiatuz. *Zozoak beleari ipurbeltz*. Honek zenbait jenderengan *Greenpeace*ekiko mesfidantza sortarazi du. Baina egia esan sekulako hankasartzea da ekologia defenditzen duten taldeen arteko borrokatan sartzea. Izan ere guztiok bat egiten ez badugu aurrez ere zailak zaizkigun helburuak lortzea, are eta gaitzagoa izango bait da.

 Mikel Arroiabe



XI. mendearen ateetan, gure zibilizazioa gero eta teknifikatuagoa eta homogeenagoa den heinean, badira lurreko bazterretan naturari guztiz egokituta jarraitzen duten herri indigenak. Gezurra badirudi ere gure planeta berean bizi dira.

Etnia txikiak dira. Bizitzaren zentzua galdu ez dutenak eta horretxek bizi irauten ditu. Hauetako herri batzuk desagertu egin dira, baina beste batzuk bizirik diraude. Ez dute gure zibilizazioa ezagutzen. Beraien grazia naturala mantentzen dute, alaitasuna galdu barik. Naturarekin harremanetan eta orekan bizi diren herri indigenak ditugu.

Herri indigenak ezagutzen

Bada gurean, herri hauekiko eta beren bizitzeko ohiturenganako jakinduria sortu zaionik. Alberto Etxebarria orain lau urte hasi zen herri indigenak ezagutzen.

Indonesian, Afrikan, Birmanian eta Indian izan da. Indonesiako Daniak ezagutu ditu, Siberut-eko Mentawaiak, Afrikako Mali estatuko Dogon, Lobi eta Pen tribuak, Thaiandiako Hmong-ak, e.a.

Denak bitxiak eta denak desberdinak.

• **Alberto, nola sortu zitzaizun herri indigenekiko kuriositate hori?**

Orain dela 4 urte Madrilgo lagun batzuekin Indonesiara joan nintzen. Lehenengo aldia zen tribu bat ezagutzera joaten ginena. Bertan Irian Jaya uharterako (Indonesia) Dani indigenekin egon ginen egun batzuk pasatzen. Bidaia berean, Sumatra iparraldeko Siberut islan ere izan ginen, Mentawaiak ezagutu genituen bertan. Orduetik urtero joan izan gara tribuak ezagutzera, behin tribu bat ezagutu eta gero gehiago ezagutzeko gogoaz gelditzen zara.

• **Non oinarritzen zarete tribu bat aukeratzeko orduan?**

Liburuetatik jasotzen dugu informazioa. Turismo bako tribuak aukeratzeko ahalegintzen gara.

• **Komunikatzeko zelan moldatzen zarete?**

Bertako pertsona bat hartzen dugu gidari moduan. Gidari horrek



Alberto Etxebarria

ondo ezagutzen du tribua. Egunez tribua bisitatzen dugu eta eurekin egoten gara. Gauean berriz, gidariari tribuaren inguruan ditugun kezka guztiak galdetzen dizkiogu.

• **Eta indigenekin zelakoa izaten da lehen harremana?**

Lehen harremana hotza izaten da. Gero eurekin egun batzuk pasatu ditugunean erlazioa hobea izaten da. Berehala hasten dira zigarroak, e.a. eskatzen. Normalean indigenek asko erretzen dute eta gogoko dute hemengo tabakoa.

• **Eurak kuriositaterik azaltzen dute zuenganako?**

Bai, normalean bai. Gu kamarekin, bideoekin, e.a. joaten gara eurengana eta zer gauza ditugun begira etortzen dira. Behin lagun batek bideoan grabatu zituen imagin batzuk eta gero grabatutakoa ikusi zutenean beldurtu egin ziren.

• **Zein izan da ezagutu duzuen herri indigena kuriosoena?**

Guztiek dute zeozer berezia. Aurten Indiako Godoiak ezagutu ditugu. Oso jende berezia da. Egun guztia edaten pasatzen dute eta mozkor haundiak harrapatzen dituzte. Arroza fermentatuz ateratzen dute alkohola. Tribu hau desagertu egingo da hemendik urte batzutara, poliki-poliki hil egingo baitira guztiak. Beste tribu batzuk ere desagertu dira horrela, Ameriketako whisky-aren eraginez esaterako.

• **Tribuak ikustera gero eta jende gehiago joango da. Ez dira poliki-poliki aldatzen joango?**

Bai. Batzuk dagoeneko aldatzen hasita daude. Afrikan esaterako misiolariak daude tribuetan sartuta. Lehen bilusik ibiltzen baziren orain erropak jazen dituzte.

Siberut-eko Mentawaien kasuan, umeak ikasten hasi dira. Nagusiek lehenagoko moduan jarraitzen dute eta ez dute aldatzeko asmorik.

Garbi dago poliki-poliki aldatzen joango direna, baina hauek bisitatzera joaten garenon aldetik garbi izan behar dugu euren kultura errespetatu beharra daukagula. Batzutan oso gauza gogorak egiten dituzte baina guk ezin dugu ezer aldatu.

• **Gauza gogorak esan duzu. Zer esaterako?**

Irian Jaya (Indonesia) uhartean bizi diren Dani tribukoek esaterako familiako norbait hiltzen denean familiako emakume edo umeari hatzamar bat mozteko ohitura dute.

• **Bertakoek nola ikusten dituzte talde indigenak?**

Hemen moduan han ere arrazakeria haundia dago indigenekiko. Bertako jendeak gutxiago izango balira moduan ikusten ditu talde hauek. Ez dute euren kultura baloratzen eta ezta gobernuak ere. Gu herri indigenak ikustera nola joan gaitezkeen ez dute ulertzen. Egunen batean hasiko dira euren kultura baloratzen.



INDONESIA (Irian Jaya) Dani-ak

80.000 pertsona inguruk osatzen dute Dani enia. Indonesiako Irian Jaya islan bizi dira. Bilusik ibiltzen dira, duten estalki bakarria kalabaza huts bat da, gizonetakoak zakila estaltzeko erabiltzen dutena. Gainontzekoa txerriaren koipeaz estaltzen dute, kolore txuria eta gorria han eta hemen tartekatuz. Gizonetakoak emakume eta umeengandik aparte bizi dira. Nekazariak dira eta emakumeek egiten dute baratzeko lan guztia. Emakumea txerriekin batera erosten zaio beste klan bati.



THAILANDIA Hmong-ak

60.000 hmong inguru bizi dira Thaiandiako iparraldean. Mendi puntetan eraikitako herrietan bizi dira, 1.200 metro tara. Opioaren erregeak ditugu. Eskuz bordatutako jantziengandik ezagunak dira eta baita euren zilarrezko bitxiengandik ere.

Joseba Larrinaga, harro egoteko moduko Atleta paralinpikoa daukagu herrian. Lau urte entrenatzen ibili ondoren esfortzuak merezi izan du, zilarrezko domina. Aspaldi bueltatu zen Atlantatik, eta deskantsatzeko asmoa bazuen ere, pixkat mareatuta dabilela adierazi digu, normala da, komunikabideek ez dute baketan utzi. Jakina, gu ere tartean izan gara.

• Joseba, lau urte eta gero merezi izan du esfortzuak?

Bai, bai horixe. Lau urte gogorak izan dira, gogor entrenatu dut baina lortutako dominarekin egindako esfortzua berdinduta gelditu da.

• Zer sentitzen da paralinpiada baten zilarrezko domina lortu eta gero?

Azken finean zure esfortzuekin lortutako emaitza berezi bat da. Baina hori bai, nire esfortzuaz gain lantalde baten lana ere hor egon da eta hau baloratzekoa eta azpimarratzekoa da.

• Nola joan zen maratoia?

Proba lehen kilometrotik gogorra izan zen, aldapa gora eta behera. Klima aldetik bero handia egiten zuen, sargori eta honek asko nekatzen zaitu. 2 ordu eta 43 minutu behar izan nituen 42 kmtako ibilbidea egiteko. Nire denbora 2 ordu eta 35 minutu da baina hango baldintzak ikusita beti utzi behar da 10 minututako margena.

• Komunikabideetan paralinpiadei eman zaien oihartzunaz zer iritzi duzu?

Han geunden bitartean komunikabideek paralinpiadei eman dieten tratamendua ona izan dela uste dut. Egunkoa egunean eramaten zen, fax-ak aguro zabaltzen ziren mundu guztira. Egunean lortutakoa hurrengo egunean hemengo komunikabideetan zabaltzen zen.

• Paralinpiadetan ikusle gutxi ikusten zen gradetan. Zer duzu esateko?

Erlatiboa da hori. Estadioa oso handia zen eta zaila da dena betetzea. Hala ere jende gutxi egon da. Nik antolakuntza arazoa dela uste dut. Paralinpiadak enpresa pribatuek finantziatu dituzte eta probetan sarrera kobratzen zen. Horregatik uste dut jende gutxi joan dela eta



Maratoia hasi aurretik Pedro Azkargorta, entrenatzailea, Josebarekin berbetan

hori hobeto antolatuta egon beharko litzateke. Gehienbat bertako atletentzat izan da penagarria besteontzat baino gehiago.

• Ikurrina ere erakutsi duzue Atlantan...

Bai. Koloretan ni espainiako selekzioarekin joan naiz baina barrutik Euskadi defenditu dut. Bestela ez nuke joateko aukerarik izango. Ikurrinak han bueltaka ibili dira hemen egongo bagina moduan. Ez dugu inongo arazorik izan. Euskaldun marka utzi dugu EEBBetan. Gu nongoak garen garbi gelditu da.

• Hurrengo paralinpikoetarako Euskadiko selekzioa sortzearen ideia entzun da komunikabideetan...

Bai. Saiatu Fundazioak zabaldu zuen Euskadiko selekzioa sortzeko ideia. Ideia hor dago eta gogoia ere bai, baina faktore asko daude tartean, politikoak horien artean. Zaila izango da baina gustatuko litzaidake Sidneyra euskaldun ordezkariak eramango bagenu.

• Orain zer egingo duzu?

Deskantsatu. Hala ere, laster hasiko naiz entrenatzen, baina hori entrenatzailearen esku dago.

• Eta hurrengo olinpiadetarako?

Sidney-ko olinpiadetarako lau urte gelditzen dira. Bitartean badaude beste proba batzuk. Momentuz horietan zentratuko naiz, baina hori bai Sidney ahaztu barik.




“Nire esfortzuaz gain, taldeko lana ere baloratzekoa eta azpimarratzekoa da”

“Euskaldun marka utzi dugu Atlantan. Ikurrinak hemen egongo bagina moduan bueltaka ibili dira”

Bapatean

- **NORI DEDIKATUKO DIOZU MEDAILA?**
Gehien lagundu didatenei, bereziki etxekoei, Pedro Azkargorta entrenatzaileari eta taldekoei eta Kepa Urrari, maratoirik gogorrena bera pasatzen ari delako.



JOSEBA LARRINAGA

- **MEDAILA ONDO GORDETA IZANGO DUZU...**
Oraindik ez behar den moduan, komunikabideetara eraman behar izan dut eta. Gero, eman didaten diplomarekin koadro batean jarriko dut.

- **ATLETISMOAZ APARTE ZEIN BESTE KIROL DUZU GOGOKO?**
Txirrindularitza asko gustatzen zait eta pelota ere bai.

- **NON BIZIKO ZINAKE GUSTORA?**
Hementxe, bizi naizen lekuan.

- **ZER BALORATZEN DUZU EMAKUME BATENGAN?**
Izateko era, den modukoa izatea.

- **EMAKUME BATEAN NON FIJATZEN ZARA LEHENENGO?**
Begieta, baina orokorrean danean.

- **BIZIORIK...**
Ondo jatea gustatzen zait, ardo pixka batekin.

- **JASO DUZUN AZKEN OPARIA...**
Koadrilakoek oparitu zidaten kutxa bat. Ilusio handia egin zidan.

- **ZURE IZAKERA ZELAKOA DA?**
Nahiko urduria naiz.

- **LOTERIA TOKATUZ GERO ZER EGINGO ZENUKE?**
Lehenengo tokatu egin behar da. Bizio batzuk hartuko nituzke baina larregi aldatu barik.

- **EGUNEKO MOMENTURIK LASAIENA...**
Gaua, lo egiteko.

- **IRAKURRI DUZUN AZKEN LIBURUA...**
Badena dena da. Patxi Zabaletarena. Oso ondo dago. Euskal Herriko eta Nafarroako historia bat kontatzen du. Trilogia polita da.

- **LANBIDE IDEALA?**
Daukatenez konforme nago. Idealea atletismotik bizitzea.

- **AMETS BAT...**
Lortu dudana.

- **BELDURRA ZERI?**
Gauza batzuri errespetua.

PEDRO AZKARGORTA

Pedro Azkargorta, Josebaren entrenatzailea, oso pozik dago lortutako emaitzaz. Josebak berezko gaitasun handia duela adierazi digu baina guzti honen atzetik egon den talde lanaren garrantzia azpimarratu gura izan du.



• **Lau urtetan Joseba entrenatzen ibili ondoren pozik egoteko arrazoirik baduzu...**

Bai, oso pozik nago. Egia esan, Josebak berezko gaitasun handia du.

• **Noiz hasi zinen Joseba entrenatzen?**

Orain 6 urte hasi nintzen. Behobia-Donostia lasterketa egin zuen eta orduan esan nion elbarrituentzat proba batzuk zeudela eta hortik aurrera hasi ginen.

• **Nola baloratuko zenuke Josebaren lana?**

Josebak oso lan ona egin du eta bera izan da azkenean domina lortu duena. Baina atzean egon den talde lana ere garrantzitsua izan da. Alde batetik, Orruñok lagundu digu analisiak egiten, eta Alberto Garaik analitika probak egin dizkio. Nik lana ipini dut baina analisi batzuk egon behar dira tartean. Bestetik, takarraren ibiltzen den taldetxo bat dago, eta hori ere laguntza handia izan da. Badirudi atletismoa oso indibiduala dela baina taldea beharrezkoa da. Horrela samurrago eramaten da entrenamentua, bestela oso gogorra da. Guzti hauen

lana eskertzekoa da eta jakina gure etxekoena ere bai.

• **Asko sufritu zenuen maratoi egunean?**

Bai, asko. Banekien hango baldintzak ikusita oso karrera gogorra izango zela. Karrera hasi aurretik ere oso urduri nengoen. 27. kilometroan txarto zihoala esan zidan Josebak, baina aldatz behera zihoanez konfidantza nuen berarengan.

• **Noiz ikusi zenuen bigarren geldituko zela?**

34. kilometroan, 3. zetoirena atzean utzi zuen. Nik animoak ematen nizekin aldamentetik, gehiago ezin nuen ezer egin. Federazioa ez zen maratoian oso ondo portatu. Euren helburua Conde zen eta besteei ez zieten jaramon haundirik egin. Josebak merito galanta dauka han dagoen hezetasunarekin ura bakarrik edanda maratoia bukatzeaz.

• **Eta orain zein aholku ematen diozu Josebari?**

Orain disfruta dezala apur batean behintzat, merezi du eta. Gero entrenatzen jarraitu gura badu serio hasi behar da ostera ere.



IÑIGO ZUBIA

13 urte

1.- 18an hasiko naiz.
2.- Gutxi. Oporretan hobeto egoten da. Aurten 8. mailan hasiko naiz eta lagunak ikusteko gogoia dut.

1.- Noiz hasiko zara ikastolan?
2.- Hasteko gogorik bai edo ez?
Zergatik?



MAITE ANAIA

9 urte

1.- 12an hasiko naiz.
2.- Apur bat. Baina hobeto nago oporretan. Ikastolan lan gehiago egin behar da oporretan baino.



JULEN GALIANO

7 urte

1.- Nik zer dakit ba...
2.- Bai, ikastolan hasteko gogoia dut futboleko jolasteko eta lagunak ikusteko.



JOANI GOMEZ

11 urte

1.- Auskalo
2.- Ez, ez dut gogorik. Ikastolan baino hobeto pasatzen dut oporretan. Oporretan jolastu egiten dut.



TAMARA TENA

6 urte

1.- Datorren astelehenean.
2.- Bai. Lagun asko ikusiko ditut ikastolara bueltatzen naizenean. Oraindik ez dut ezer erosi ikastolarako.

Eskolara buelta

IRIARTE

Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA

Mitarategarai
Jatetxea

- Nekazaturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea

Eliza aurrealdean

Tfnoa: 77 13 57

ARGAZKIAK

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekararren, 3

Tfnoa: 77 11 76

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



**“Kurutze berri,
kurutze ona, zabaldu
izu gure errian
zoriona”**

Hala dio Kurtzebarriko gurutzean dagoen plakak.

Urte asko dira, herriko lagun batzuri gurutzea jarri behar zela otu zitzaiea. Horien artean, han ziren, **Alejandro Bengoa, Angel Aznar, Pedro Jauregi, Hermenegildo Galdos, Roman Galdos** eta **Luis Arrue**.

Ez dakigu ideia zeini bururatu zitzaion baina herritarrek ondo hartu zuten notizia.

Gurutzea Beroan egin zen. Eztabaida batzuen ondoren gurutzea gaur egun dagoen lekuan jarriko zela erabaki zen (1133 m) eta ez gailurrik altuenen (Elorretako Haitza) hemendik ez baitzen hain ondo ikusten.

Haitzartean Teodoro Zuazuak egin zuen zuloa. Bi zatitan igo zen gurutzea, horretarako bi gurdi eta lau idi pare erabiliz. Hauexek idien jabeak: Esteban Zuazua (Egileor baserrikoa), Juan Jose Orueta (Apotzaetxearri baserrikoa), Lorenzo Arregi (Markole baserrikoa) eta Andres Bengoa (Jeronimuena baserrikoa). Jende askok lagundu zuen tartean, esfortzua handia baina gogoia ere handia zen.

Guzti hau 1928ko irailaren 8an gertatu zen. Hurrengo domekan irailaren 11n gurutzea haitz gainera altxatu eta bertan jarri zen.

Bedeinkazioa:

1928. urteko irailaren 18an bedeinkatu zen gurutzea. Egun zoragarria egin zuen. Meza eta kantaldia egon zen goian. Meza Don Emilio Larrañagak eman zuen, orduko Aretxabaletako parrokoak. Txistua eta tanborila barriz, Lucas Iturbek jo zituen. Inguruko herri eta auzoetako jende asko joan zen Kurtzebarrira. Ahaztu ezineko eguna izan zen.

Zenbat euri egin duen ordutik!

Irailaren 18a edo gertuko domeka jarri zen Kurtzebarriko eguna ospatzeko. Baina ospakizun haundiena 25 urtetara egin zen, zilarrezko ezteietan. Orduan eguraldia zela eta irailaren 10era aurreratu zen eguna. Orduko egunkari bateko artikulua batek hala zioen: *“Kurutzebarrin kontzentrazio handia, 2.500 mendizaletik gora elkartu ziren”*.



1978. urtean, gurutzea jarri zeneko 50. urteurrena ospatu zen eta lagun asko elkartu zen Kurtzebarrin

LEIBER
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



**HAIZEA
AKEITEGIA**

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

Berriro lanera



M.J. Aretxaga

Irailean gehienok aurre egin behar izaten diogu egoera latz horri. Ni oraindik lur jota nago. Oporretatik ezin errekuaratu. Beste hilabete bat edo bi eskatu beharko ditut, ordaintzen dida-tenagatik...

Beste batzuk alderantziz indar berrituta etortzen dira oporretatik. Hala gertatuko zitzaion seguruaski **Imanol Aginagalde** gure lankideari. Bera izango dugu aurrerantzean Kurtzebarri eskolako zuzendaria. Ez du lan makala izango martxan dauden plangintza berri horiekin. Postua izten duena barriz, **Lucia Cabrero** da. Azken honek lasaiago lo egingo du hemendik aurrera.

Indarrez etorri den beste bat **Gregorio Arrieta** da. Bergarako preferenteko futbol taldea

entrenatzeko ardura hartu du. Ea zorte ona duen talde berriarekin eta baita arbitroekin ere, gaur egun futboleko danan beharra egoten da eta.

Arientzako auzokoak ere forma onean bueltatu dira. Joan den aste bukaeran jai ederrak ospatu dituzte. Martxa haundia eta sari ugari egon zirela esan didate. Dana dala, bertako II. kartel lehiaketaren irabazlea, "kanpotar" bat izan da, **Igor Larrañaga** mondrauetarra, bigarren, **Gorka Uriarte** eta hirugarren **Nagore Agirre**. Datorren urtean ea niri ere uzten didaten parte hartzen.

Gehienok bueltan gatozen bitartean beste batzuk alde egiten dute. Horrela, datorren domekan irailaren 15ean **Mikel Egizabal** abadeari agur eta **Antonio Astigarragari** ongi etorria emateko meza bat ospatuko da. Meza Jose Maria Setien Gotzaiak emango du. Guk zorte ona opa diogu doanari eta baita datorrenari ere.

Bueno, dagoeneko nekatu naiz, oporretako bixamona kendu ezinean nabil eta ez dut gehiago idatziko. Ah! oraindik oporretan zaudetenok aprobeztatu.



Jarriko gau → TXARTO
Jarriko dou (jarriko dugu) → ONDO

Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
 euskera elkarte



Nieves Arana

"Nire denbora librean eskulanak egitea

gustatzen zait"



Ia 25 urte daramatza Nievesek Ibarra estankoa lanean. Egunkariak, tabakoa, ikasteko materiala eta beste mila gauza saltzen ditu. Lanetik aparte eskulanak egitea eta pasiatzea ditu gogoko.

- Estankoa baino lehenago non lan egin zenuen?

Coprecin.

- Atxabaltarrok asko erreten dugu?

Bai, bastante.

- Zu zeu erretzailea zara?

Ez.

- Egunkari guztiak begiratzen dituzu?

Ez, ez daukat egunkaria irakurtzeko ohiturarik. Irratia egun osoan entzuten dut.

- Umetan non ikasi zenuen?

Eskolan eta monjetan ere ibili nintzen.

- San Migeletarako zer jarriko zenuke?

Aintzinako boda egingo nuke ostera ere.

- Zer egiten duzu denbora librean?

Gantxiloa egitea asko gustatzen zait. Mota guztietako eskulanak egiten ditut. Honez gain pasiatzea ere asko gustatzen zait.

- Eta nora joaten zara pasioan?

Beti leku desberdinetara baina hementxe inguruan. Bolibarretik Mendiolara, Apotzatik Gellara, Untzilara, e.a. Inguru oso polita daukagu eta leku asko daude buelta bat emateko.

- Abeslari gustoko bat?

Imanol asko gustatzen zait, Benito Lertxundi...

- Gaurkoan bizi ala biharkoan ere pentsatu?

Biak. Biharkoan pentsatu behar da baina hobeto gaurkoan bizitzea.

- Postrerako gazta ala pastela?

Gazta.

- Ikasteko aukera izanez gero, zer ikasiko zenuke?

Akordeoa. Hasi nintzen ikasten baina ez daukat denborarik.

- Zer falta da Aretxabaletan?

Kanpoko pista bat eta parke bat ere bai. Inguru garbitzea eta txukuntzea ere komeniko litzateke, narrak, e.a.

- Zerk ematen dizu tristura eta zerk poza?

Tristura, gazte jendea droga munduan ikustea. Poza alderantzizkoak, gazteak giro sano batean ikustea.

- Urtaro gogokoena?


Udaberria. Alaia da, kolore asko ikusten da, eguna luzatzen hasten da, e.a.

- Bizitzako egunik politena?

Seme-alabak jaio zirenekoa...



Irakurtzeko liburuak



Titulua: Giles, Hameko nekazaria

Idazlea: J. R. R. Tolkien

Marrazkiak: Roger Garland

Itzulpena: Idoia Gillenea

Argitaletxea: Desclée de Brouwer, 1995

Saila: Epotxak eta erraldoiak

Giles Britainiako Uhartearen erdialdean bizi zen nekazaria zen. Bere bizitza oso lasaia zen bere lurretan erraldoi bat sartu eta uxatzea lortu zuen arte. Bere ausardiagatik ospetsu egin zen eta erregeak ezpata zahar bat oparitu zion ordainez. Gero herensuge bat agertuko da eta Gilesek aurre egin beharko dio bere ezpataren laguntzaz.

J.R.R. Tolkien idazle ospetsua da fantasiako literatura maite dutenen artean. Bere lanik ezagunena "The Lord of the Rings" (Erastunen Jauna) klasiko bat da jadanik.

Honako hau legenda itxura duen kontakizuna da, fantasiaren munduaren bitartez errealtateko arazoak ere aztertzen dituena. Liburu hau 1949an argitaratu zen arren ez du gaurkotasunik galtzen eta 11 urtetik aurrera irakurtzeko aproposa da. Roger Garland-ek jatorrizko bertsiorako eginiko marrazkiak ere aipagarriak dira.

✍ Joseba Lopez de Armentia



ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



**BASTER-ALDE
JATETXEA**

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

BERGARA



San Martin Agirre jaiak

Irailak 13

BIKOTEEN DANTZA ASKATUKO XII. TXAPELKETA

Gaueko 10,30etan udal pilotalekuan.

Irailak 14 zapatua

Goizeko 9,30etan San Martin Agirre plazan **BARAZKI, FRUITU LORA ETA GAZTEN LEHIAKETA.**

Goizean zehar, Bedelkarrek antolatuta, **BERGARAKO ODOLKIEN DASTAKETA.**

VI. San martin txapelketa, Gorkako kantina inguruan, **AINZINAKO ABANKARGAZKO ARMEKIN PLATER TIRAKETA.**

VII. San Martin Herri krossa, herriko kaleetan zehar, **HERRI KROSSA.**

Arratsaldeko 6etan seminarioko patioan, **HERRI KIROLAK.** Arratsaldeko 8etan **TXEKOR JANA.**

Gaueko 10,30etan **BERTSO JAIALDIA** Jardun Elkarteak antolatuta Mariaren Lagundiko aretoan. Bertsolariak:

Ainhoa Agirreazaldegi, Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Iñaki Murua, Angel Mari Peñagarikano.

Gaueko 12,30etan, **Bergarako taldeek girotutako MEXIKAR FESTA.**

Irailak 15 domeka

Goizeko 8,30etan **SOKAMUTURRA** herriko kaleetan zehar. Goizeko 9etan, XXIII. **MARGOLARI LEHIAKETA** hasiera kultur etxean Beart elkarateak antolatuta.

Gaueko 10,30etan **DANBORRADAREN IRTEERA.**

Gaueko 12,30etan **LISKER** taldeak alaituta dantzaldia San Martin Agirre plazan.

Irailak 16 astelehena

Goizeko 8,30etan **SOKAMUTURRA** herriko kaleetan zehar.

Arratsaldeko 7etan emakumeen **eskubaloiko ohorezko mailako bi talderen arteko partidua:**

Bidebieta-Hernani. Labegaraietako kiroldegian.

Gaueko 10etan **SUZKO ERRUERAK.** Ondoren dantzaldia **GAUBELA** taldearekin.

Irailaren 14tik 20ra

XAKE ASTEA

IV. BERGARA HIRIA XAKE TXAPELKETA IREKIA, irailaren 14 eta 15ean udal pilotalekuan.

Irailak 18, arratsaldeko 6etan kultur etxean, "XAKE, KULTURA ETA KIROLA" mahaingurua. **F. Izeta, M. Sebastian, Y. Esturo, M.A. Muela, M. Zubia eta**

Diputazioko eta Udaleko tekniko arduraduna.

Irailak 19, arratsaldeko 5etan San Martiñ Agirre plazan, **XAKEko ALDIBEREKO JOKALDIK.** Martin Arriaran eta Andres Diezen eskutik.

Irailak 20, arratsaldeko 6etatik aurrera, 10 orduko **XAKE AZKARREKO MARATOIA,** Bergarako Xake taldearen egoitzan, zaletu guztientzat irekita.

OÑATI



Irailak 22

ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA

Oñatin, goizeko 11etan hasita.

A R E T X A Z O K A

• Andramaixetan **urrezko pultsera** bat aurkitu nuen. Datu gehiago gura badi-tuzu deitu telefono hone-tara gaeuz: (945) 44 52 00

LANA

• Andereño diplomatua klase partikularrak emateko gertu dago. (OHOKO lehen mailatik BOKO lehen mailararte). Telefonoa: 79 75 23.

• Idazkaritzan diplomatuak lanak ordenagailuz pasatuko lituzke. Tfnoa: 79 31 47.

• Emakume euskalduna eta kotxeduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 79 33 19.

ETXEBIZITZA

• Apartamentu bat salgai dago Eskoriatzan. Telefonoa: 74 01 17

• Pisu bat salgai. 83 m² ditu eta jantzia. Solohaundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma). Telefonoa: 79 45 31.

• Neska bat behar da Bilbon pisua osatzeko. Telefonoa: 79 44 64 Junegatik galdetu.

• Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

• Pisua salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguer-dian eta arratsaldean).

• 3 neska euskaldunek pertsona bat behar dute Madrilen pisua osatzeko, ekainetik aurrera. Tfnoa: (91) 4043838

• 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



Irailak 15 domeka

**MEZA NAGUSIAN MIKEL EGIZABALI
AGURRA ETA ANTONIO
ASTIGARRAGARI ONGI ETORRIA**

Jose Maria Sefien Gotzaiak
emango du 12etako meza
nagusia.

**ZIKLOTURISTEK DORLETA-DORLETA
KLASIKA**

Dorletako eguna dela eta **Aretxabaletako zikloturistek DORLETA-DORLETA** martxa antolatatu dute. Goizeko 9etan Gatzatik irtenda.

BESAIDERA IRTEERA

Murrukixo M. E. Besaidera egingo du irteera. Goizeko 9etan partenoitik. Mendian hildakoei omenaldia egingo zaie.

Irailaren 17tik 20ra

ERAKUSKETA

URAREN KULTURA BERRIA

erakusketa ibiltaria ikusgai egongo da udaletxeko ganbaran.

Irailak 18 eguaztena

HITZALDIA

URAREN KULTURA BERRIA

Aren inguruan berba egingo du Gipuzkoako ur kontsoztioko gerentea den **Iñigo Elosegik**. Bertan, uraren aurrezkia, kalitatea, erabilera egokia, e.a. inguruan berba egingo du. Arratsaldeko 7etan udaletxeko ganbaran.

Irailak 22 domeka

HAURREN EGUNA

Loramendi dantza taldeak antolatuta.

KILOMETROAK
Lehiaketa

Aurtengo kilometroak jaia Elgoibarren ospatuko da urriaren 6an. Aretxagazetak ere parte hartu gura izan du kilometroak jaiari laguntzen. Horretarako ondorengo lehiaketa proposatzen dugu. Kilometroak jaiaren logotipoa aldizkarian nonbait ezkutatu dugu. Aurkitu eta zein orrialdetan dagoen adierazi eta gure bulegora bidali erantzuna. (kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara). Asmatzen duzuenon artean, 3 pertsona aterako dira irabazle, **KILOMETROAK 96k** salmentan duen materiala erosteko, 2.000 pezetako balioa duten agiri bana emango zaie.

Aurreko aleko irabazleak,

Javier Ayastuy


Edurne Ortiz de Zárate eta

Jone Arkauz dira.

Zorionak. Hurrengoa zu izan zaitezke.

Animatu eta parte hartu!!!

Hauxe da logotipoa, ea topatzen duzun



Zein orrialdetan dago **KILOMETROAK 96** jaiaren logotipoa?

Erantzuna:.....
.....
Izena:.....
Kalea:.....
Tfnoa:.....



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 71 44 07
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28
ARETXABALETA

J.J

ITURGINTZA

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



operazioa heldu da

Irailaren 1etik 30era bitartean

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tfnoa: 79 07 44-54 • Faxa: 79 62 54

